






## BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO EMAKUMEAK: PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKORAKO DENBORAREN BILA

KARLOS CORBELLA

Ale honetan ere...

-  IRITZIA: Elkartasunak emakumezko izena du
-  Marcela Lagarde antropologo eta etnologo mexikarrari elkarrizketa
-  Emakundek metodologia berria diseinatu du enpresen berdintasun diagnostiko eta planetarako



CARMEN LAVIÑA  
KAZETARI ETA SOZIOLOGOA

# Elkartasunak emakumezko izena du

Artikulu honetan bi premisa hartu ditut abiapuntutzat, garrantzitsuak direlako generoa eta elkartasuna edo solidaritatea lotzeko. Lehenik, kontuan hartu behar dugu eragin patriarkal handia duen gizartean gaudela eta lanaren banaketa sexualak gizonezkoei rol publikoak esleitzen dizkiela, emakumeei, berriz, etxeko lanak eta pertsonak zaintzera bultzatzen jarraitzen dieten bitartean. Bigarrenik, elkartasuna eta boluntariora edo hiritarren partaidetza gauza bera ez direla, nahiz eta balio eta helburu baliokideak izan.

Elkartasuna emakumeek landu dute luza-roan Erdi Arotik, garai hartan ez baitzegoen hiritarrentzat gizarte zerbitzuak martxan jartzeko mekanismo edo erakunderik. Gizonak gerrara joaten zirenean emakumeak bakarrik geratzen ziren, eta askotan, alargun. Bizirauteko modu bakarra, maiz, elkarren artean laguntzea zen, bai elikagaiak eskuratzeko baita familiaren menpe zeuden seme-alabak, adinekoak eta gaixoak zaintzeko ere.

Elkartasun horrek auzotarren arteko erlazio onarekin zerikusi handia zuen bai eta pertsonen elkartasun eta borondate onarekin ere. Elkartasun hau etxean eta eremu pribatuan lantzen zen, emakumeari esleitutako eremuan hain zuzen ere, eta ez betidanik gizonari esleitutako eremu publikoan.

Iraultza Frantziarraren garaian, gizonezkoei hiritartasuna eman zieten hiritarren partaidetza eta Kontratu Soziala bezalako terminoetan, baina emakumeak bertatik kanpo utzi zituzten, ikuspuntu patriarkal eta androzentristaren eraginez. Gaur egun, hiritarren partaidetzak gobernu demokratikoekin zerikusia du. Gobernu demokratikoek hiritarren iritzia kontuan hartzeaz gain, hiritarrak “gauza publikoen” alde eta guztion ongizatearen alde lan egitera bultzatzen dituzte.

Emakumeek gizonek baino oztopo gehiago dute gizartean aktiboki parte hartzeko. Ez da hain erraza lana, etxea, senide gazte eta adinekoak uztea, hondartzatik galipota kentzera, alderdi edo sindikatuko batzarrera edo manifestaldira joateko. Bidezkoak ez diren genero esleipenengatik emakumeek dituzten ordutegi eta ardurek bere buruarekiko kontziliazioa

eskatzen diete, emakumeak ordaindutako lan munduan sartu bai, baina gizonek ez dituztelako bere gain hartu dagozkien etxeko lanak edo zaintza ardurak. Honen ondorioz emakumeek askotan lan jardunaldi bikoitzak edo hirukoitzak dituzte.

Bai elkartasuna, bai eta hiritarren partaidetza ere, ongizate orokorrean laguntzeko egungo gizartean dirauten arautu eta antolatutako gabeko modu espontaneoak dira. Halaber, boluntariorarekin balio amankomunak dituzte; azken hau modu altruista eta antolatua da, gizarte zibilak, pertsona gutxietsi, marjinatu eta baztertuekin elkartasuna, salaketa soziala eta laguntza landu ditzan.

Honela genero femeninoaren eta boluntarioraren arteko erlazioa bikoitza dela esan genezake. Alde batetik, munduan boluntarioran diharduten pertsonen %70 emakumeak direlako, gizonen %30aren aldean. Bestalde, emakumeak dira laguntza, gizarte zerbitzu eta ekintza boluntario gehien eskatzen dutenak, pobrezia feminizatuta dagoelako eta oraindik ere emakumeei dagozkielako familiaren menpe diren pertsonen arreta eta zaintza.

Hau da Espainiako pertsona boluntarioaren perfila: emakumea, 25-35 urtekoa eta erdi edo goi mailako ikasketak dituena. Hala eta guztiz ere, zaila da emakumeen parte hartzea boluntarioran zenbatzea, gehienetan GKEk ez dituztelako beren datuak sexuen arabera sailkatuak.

Gainera, Boluntariora Legerik bada ere, honek ez ditu aurre ikusten pertsona boluntarioaren datu guztiak, hau da, sexua, adina, estatus zibila eta ikasketak bezalako ezinbesteko datuak jasoko lituzkeen fitxa amankomuna, ez eta Espainiako boluntariora

aztertzen lagunduko luketen beste datu batzuk, hots, motibazioak, uztearen arrazoiak, emandako orduak, etab.

Kontutan hartu beharko genuke emakumeen partaidetza on line boluntariorizan, honek ez duelako pertsona erakundera bertaraterik eskatzen eta erakundeen lan orduetatik kanpo egin daitekeelako, hau da, emakume gehienek kasuan, afaria egin eta seme alabak oheratu ondoren edo asteburuetan, kausa noble bati beren denbora eman ahal izateko aurkitzen duten atsedendiren batean.

## EMAKUMEAK GEHIENGO ABSOLUTUA GIZARTE EKINTZAKO BOLUNTARIOTZAN

Hau guztia hala bada ere, azken bereizketa egin behar dugu boluntarioriza eta generoa aipatzean. Esan beharra dago boluntarioriza mota desberdinak daudela eta hauen artean nabarmen dela gizarte ekintza deritzon boluntarioriza, elkarte kopurua, ordaindutako pertsonala, pertsona boluntarioak eta subentzioen zenbatekoaren arabera. Gizarte ekintzako boluntarioriza gure herrialdeko boluntarioriza orokorren %80-85ekoa da eta gizarteko pertsona gutxietsiei laguntzean datza.

Boluntarioriza mota honetan emakumeek osatzen dute gehiengo nabarmena. Gizonak, aldiz, gehiengo dira garai batean zerbitzu militararekin edo betidanik gizonezkoetat hartutako lanbide edo jarduerekin loturikoetan, hau da, itsas salbamendu edo sorospenean, mendi garaiko erreskatean, eskian, babes zibilean, kirol edo aisialdiko jardueretan, eta abar.

Bukatzeko esan dezakegu elkartasun edo solidaritate tradizionala ia-ia emakumeen zeregina dela, antolatatu gabeko eremu partikular batean eta pertsonen “gertutasunarekin” loturikoan egiten delako. Gizarte ekin-



Elkartasun edo solidaritate tradizionala ia-ia emakumeen zeregina dela, antolatatu gabeko eremu partikular batean eta pertsonen “gertutasunarekin” loturikoan egiten delako.

tzako boluntariorizak ere emakumeen gehiengo du, baina mota desberdinetako hiritarren partaidetza eta tradizionalki gizonezkoetat hartutako lanbide edo zereginarekin lotutako boluntarioriza, funtsean, gizonen zeregin da.

Beste eremu bat geratzen da oraindik eta badakit bat baino gehiagok zalantzan jarriko lukeela elkartasunarekin zerikusia duenik. Hala eta guztiz ere, ausartzen naiz esatera baduela erlaziorik, lotuta dagoelako emakumeen bizitza pertsonala, familiarra eta laborala kontziliatzearekin. Horregatik gizarte ekintzako hirugarren sektoreko enplegua aipatu nahi dut, hau da, Gobernu Kanpoko Elkarteena, hain zuzen ere, pertsonalaren gehiengo emakumeek osatzen dutelako.

Emakume Progresisten Federaziorako egin nuen azterketaren arabera, irabazizko xederik ez duten erakundeetan lan egiten duten pertsonen %63-65 inguru emakumeak dira. Zergatik? Ez daude ondo ordain-

duak, lan ibilbidea egiteko edo mailaz igotzeko ez dute aukerarik eskaintzen, baina, bestalde, orduetegi malguak dute, gehienetan, lehiaketa eskasa da, eta bizitza pertsonala, familiarra eta laborala kontziliatzeko aukera eskaintzen dute.

Gaztela-Mantxako GKE batean egindako beste azterketan ondorioztatu genuenez, emakumeek nahiago zuten “denbora libre” izatea (ez berriantzeko, noski, baizik eta “generoz esleitutako” zereginak betetzeko) beren ibilbide profesionalean errekonozimendua eta ardura handiagoak gainean hartzea baino, hauek dedikazio osoa eskatuko luketelako.

Amaitzeko esango nuke, elkartasunak emakumezko izena duela emakumeak direlako, gizonak baino gehiago, enpatia (besteren lekuan jartzeta) laguntza eta altruismoa lantzen dutenak, agian, beren buru babestu gabea ikusi dutelako eta bistatik baztertuak, marjintatuak sentitu direlako, gizona gauza guztien neurria den gizarte honetan.

# Marcela Lagarde



Marcela Lagardek nahiago du erakunde zibiletatik egitea politika.

## «Emakumeen eskubideak beti daude arriskuan»

Bere burua “denbora osoko feministatzat” hartzen duen antropologo eta etnologo mexikarrak partaidetza soziopolitikorako denboraren erabileraren inguruan Bizkaia eta Gipuzkoako elkarteek abenduan antolatutako Topaketetan parte hartu zuen. Bere herrialdean hiru urtez diputatu izan zen honek aurrera eraman zuen Emakumeek Indarkeriarik gabeko Bizitza Librea izateko eta Kode Penal Federaleko Feminizidioaren Delituari buruzko Lege Orokorra. Senatuan parte hartzeko tentaldian jarri badute ere, nahiago izan du beste frontetatik proiektu desberdinetan lan egin, adibidez, “Mujeres en plural” izeneko Sarean, bai eta hitzaldiak eman, edo artikulua zein liburuak idatzi. TEXTUA: CARMEN RUIZ DE GARIBAY ; ARGAZKIA: KARLOS CORBELLA

**M**arcela Lagarderen esanetan emakumeen aurkako indarkeria eremu publikoan kokatzea lortu den gaitako bat da. «Ezkutupe-  
tik atera dugu, lotsatik, errutik at, eta gizartearen arazo gisa kokatzea lortu dugu».

Harro dago bere herrialdeko diputatu gisa Emakumeek Indarkeriarik gabeko Bizitza Librea izateko eta

Kode Penal Federaleko Feminizidioaren Delituari buruzko Lege Orokorra aurrera atera dutelako: «Lege hau lege espainiarraren ondoren egin genuen eta berau ez bezala, espainiarrak bikotearen indarkeria besterik ez baitu hartzen genero indarkeriatzat, lege mexikarrak bikotearena ez ezik, familiarena ere hartzen du kontuan, komunitateko taldeek eragin dezaketena, instituzionala eta feminizida deritzona. Bost indarkeria mota bereizten ditu: fisikoa, sexuala, ekonomikoa, psikolo-

«Ezkutupetik atera dugu emakumeen aurkako indarkeria, lotsatik, errutik at, eta gizartearen arazo gisa kokatzea lortu dugu»

gikoa eta ondasunezkoa, batera eragin dezaketenak. Demokrazia eta garapena denontzat ziurtatuta ez dauden tokietan emakumeen egoera arriskutsuagoa da. «Lege hau egin genuenean buruan genituen emakumeen segurtasuna bermatzea, eremu pribatu zein publikoan, eta emakumeak egoera arriskutsura (psikologikoa, sexuala, ekonomikoa, laborala, hezkuntzako edo bestelako arriskuak barne) eraman dezakeen edozein zirkunstantzia aurre ikustea».

Marcela Lagarde baikorra da eta uste du emakumeen aurkako biolentzia «errotik atera daitekeela» baina, horretarako, indarkeria hori zabaltzen duten baldintzak ezabatu behar direla gehitzen du, hau da, hezkuntza informala, eguneroko elkarbizitzan indarkeriara jotzen duten adibide pedagogiko basatiak eta mundu osoan eragin izugarria duten komunikabide itzaletan agertzen direnak.

## POLITIKA ERAKUNDE ZIBILETATIK EGITEA

PRD alderdiko zerrrendetan (Partido de la Revolución Democrática) hiru urtez diputatu independente gisa lan egin ondoren, ikerlari ere den emakume honek nahiago du konpromiso zibil eta komunitarioekin erakunde zibiletan lan egin, politika egiteko beste modu bat direlako.

«Emakumeek duela denbora asko ekin genion lan egiteko beste modu honi. Egokia da kontuan hartzen dituelako komunitatearen beharrak betetzeko emakumeek dituzten funtzio eta rolen jarraipena delako. Askotan elkarte zibil hauek adierazpen, salaketa, eskaera edo atentzio deia egiteko bozgorailu bezala balio dute, gizarteak arazo jakin horiei arreta eman diezaien. Beste batzuek gobernuaren lana egiten dute eta beste batzuk alderdi politikoekin harremanetan jartzen dira. Latinoamerikaren kasuan badago «elkarte politikoa» deritzon figura, berez, alderdi politikoa ez dena, eta emakume asko antolatzen gara talde zibil eta politiko hauetan, zeregin inportantea dutelako: alderdi politikoek jaso beharreko gabezien diagnosis egiten dute. Era berean, alderdi politiko desberdinetako emakumeak bultzatzen dituzte emakumeen fronte komun batetik indarra emateko. Ez diete alderdi bateko emakumeei beste batekoen aurka laguntzen, baizik eta identitate politiko anitza

duen fronte hori osatu duten emakume guztiak babesten dituzte. Ereduek honek emaitza onak eman dizkigu eta aniztasunean lan egiten irakatsi digu, alderdi politiko guztiak aurrera eramaten eta Kongresura iristea nahi dugun agenda egiteko, azken honek denon oinarritzko kontsentsua izan dezan. Lan izugarria izan da alderdi politikoen koloreen gaitetik, generoan oinarritutako aliantza egitea, baina aurrera jarraitzea lortu dugu, ez beti pertsonen dagokienez, agian ez, baina bai gaitetik eta agendari dagokienez. Erakunde bakoitza bakarrik badihardu lanean, gai beraren inguruan ari diren beste elkarteekin lan egiten ez badu, denbora eta erakundeak dituen diru zein prestakuntza baliabideak alperrik galtzen ari gara. Hau nahiko korapilatsua da, erakunde bakoitzak berezko nortasun, ibilbide eta ekarpenak dituelako, bere prestigio zibil zein politikoa baliogarria delako eta kosta egiten zaionalako fronte zabaletan beste batzuekin elkartzea, azken finean, espazio politikoek ematen duten kapital politiko horren protagonismoa galtzen delako».

Gainera, Marcela Lagarde Mexikon indar nabarmena hartu duen Red Mujeres en Plural deritzon sarearen partaidea da. «Sare honen helburua emakumeak politikan jarduteko baldintza parekideak lortzea da, eta berdintasun substantiboa sartzeko, konstituzioa aldatzea. Sare honetako partaideak dira, alderdi politiko desberdinetako emakumeak, buruzagi zibilak, gizarte mugimenduetako buruzagiak, eta alderdi politikorik gabeko emakumeak. Lege hau eta honekin batera joango liratekeen politikak onartzeko lan egiten ari gara. Leku bakoitzean ipini behar dira oinarriak emakumeek politikan parte har dezaten».

Plataforma hauek arrakasta izateko formularik ez dagoela adierazi du: «Nire ustez, ezin ditugu emakume guztiak elkartu, emakumeen aurrerakuntzarekin eta berdintasunarekin zerikusia duten proposamenarekin politikoki sintonizatu dauden emakumeak baizik. Komenigarria iruditzen zait axola zaizkigun gaiak (hiria, ingurumena, demokrazia) lantzen ari diren elkarte mistoei gerturatzea eta halakorik ez duten espazioetara generoaren perspektiba eramatea. Antzeko erakundeak aukeratu beharko genituzke eta beraiekin sinergia bilatuz aritu. Plataformak zentzuzkoak dira tokian tokiko agenda eratzen dutenean eta gauza guztiak aldi berean egin nahi

ez dituztenean, hau da, epea amaitzen denean berrikusiko diren helburu zehatzak finkatzen dituztenean. Elkarrekin jarraitzeko zerbait badugu, aurrera; bestela, bakoitza bere etxera».

## GENERO MEMORIA

Puntu honetara iristeko ezinbestekoa da genero memoria izatea: «Historiaren denbora luzeak gure bizitzen denbora laburrean egin behar du. Iragana deskubritzen ez badugu, emakumeen iragan politiko hori deskubritzen ez badugu, umezurtz egongo gara, feminista klasikoek aipatzen zuten bigarren mailako generoaren partaidea izateak sortzen duen umezurtzaren zentzu horretan; bistatik kenduak, ezabatuak, isilduak, izan direlako, erreferenterik gabekoak, eta oraindik ere gu historia patriarkala ikasten ari gara. Horregatik, beharrezkoa da jakitea beste emakumeek zenbat denbora eman zioten politikari, parte hartzeko zer egin zuten, zein baliabide erabili zuten hori beste pertsonen artean zabaltzeko, horiei laguntza eta elkartasuna eskatzeko».

Emakumeekiko elkartasuna oso zaila da, dio Lagardek. «Blokeatuta dago, bai androzentrismoagatik bai eta patriarkatuagatik». Badira herrien arteko elkartasuna, abantaila gutxioko taldeekiko edo baztertuakiko elkartasuna, baina emakumeekiko elkartasuna zailena da. Elkarteek eta erakundeek aurrean duten lan inportantea eta denboraren erabilera berria ekartzen duena zera da, emakumeekiko gizarte elkartasuna erakitzea, hots, onarpen soziala, eta androzentrismoa eta matxismoa ezabatzea».

## LORTUTAKO DEFENDATZEA

Lortutako emakumeen eskubideak beti daude arriskuan eta gal zorian. Horregatik, Marcela Lagarde proposatzen du: «Kontzientzia osoz eta buru argitasunez lortu dugun guztia defendatzea, eskubide horiek galtzen baditugu, gizarte osoak jasango dituelako kalteak. Kalte hori elkarbizitza baketsuaren aurkakoa da, emakumeei zigorgabetasun horrekin min ematerik badago, izugarritzko indarkeria eragiten ari zaie guztion aurrean».

Hau da bere proposamena: «barrutik jakin behar dugu emakumeak garaile eta eskubideak izateko eskubideak ditugula, modernitateaz jantzitako izakiak garaile. Eskubide horiek modernitateatik defendatu behar ditugu, eskubide horiek arian arian zabaldu, sendotu».



## BIZKAIKO ETA GIPIZKOAKO EMAKUMEAK: partaidetza soziopolitikorako denboraren bila

Bizkaiko eta Gipuzkoako elkarte mugimenduak, gizartean duen indarra sustatze aldera, bi topaketa burutu ditu —bata Bilbon eta beste Donostian— honako lemapean: «Partaidetza soziopolitikorako denboraren erabilera berrien bila». Partaideen proposamenak koordinatzen zituen Marcela Lagarde antropologo mexikarraren ponentziak eztabaidari hasiera eman zion.

TEXTUA: CARMEN RUIZ DE GARIBAY; ARGAZKIAK: KARLOS CORBELLA

## BIZKAIKO EMAKUMEEN ELKARTEAREN MUGIMENDUAREN ONDORIOAK



1

Baliokidetasuna sentitzeko ezberdintasunak onartu behar ditugu, eta horrek berdintasunak azalean uzten ditu.

2

Ohiko itxoitean emakumeok ez gara inoiz eragile aktiboak baizik besteen ekintzaren hartzaileak.

3

Misoginiak zenbateraino busti gaituen jakin behar dugu. Oztupoak jartzen dituzten jarreraren gainean egotea norberaren kontzientziari eta ardurari dagokie.

4

Boluntariotzako denbora militantzia denbora da, uste sendoak sortzen duena, eta ordaindu gabekoa.

5

Ozenki hitz egin behar dugu, eta elkarrekin jarraitu, sinergian eta adostasunean: gure kolektibitatearen elkarren osagarria izaten gure eskubideak lortzeko, eraikitzeko eta defendatzeko.

## GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ELKARTEAREN MUGIMENDUAREN ONDORIOAK



1

Partidu politikoetatik at politika egin daiteke, partaidetza soziopolitiko testuinguruaren barruan, elkartearen esparruan, GKEak, plataformak, foro eta abarretan.

2

Gure elkarteak indartu behar ditugu, horretarako sareak eratu eta bertan lan egin sinergiak sortzeko

3

Ahalduntzea lortzeko genero memoria izan behar dugu.

4

Elkarteak eta erakundeak misoginiaren suntsipenerako ahalegin daitezten eta gizartean, kulturean, bortizkeriarik gabeko kirolean eta abarretan emakumeen ekarpenak onartzea, denboraren erabilera berri bat da.

5

Bai gizonezkoak bai emakumezkoak misoginiaren hazitakoak gara. Misoginia errotik kentzeko beste emakumeak onartu behar ditugu.

**B**izkaiko eta Gipuzkoako emakumeen elkarteak urteetan zehar ibili dira hainbat topaketaren inguruan lan egiten, elkartearen mugimendua indarberritze eta emakumeen ahalduntze aldera zerikusia duten hausnarketa egiteko bategitik, zein estrategiak partekatu eta adosteko bestetik. Izan ere, Bizkaikoentzat seigarren topaketa da, eta Gipuzkoakoentzat, berriz, zazpigarrena. Orain erabat berria da bertan aplikatzen diren metodologiak. Horiek ezagutza partekatze genero perspektiba baliatzen dute, hau da, jakintzaren kolektibizatzeko harreman simetrikotara ekartzen dituenak. Erakundeetan nagusitzen zen eskema bertikala eraitsi dute eta ordezkapen horizontalak aurrera atera daitezten indarra jarri dute. Hori guztia erreferentzia bat da.

«Eskema bertikalean hazitakoak gara baina eskema horizontala askoz ere aberasgarriagoa dela adierazten du eskarmentuak», dio Yolanda Núñez-ek, Getxoko aholkularitzako azpibatzordeko ordezkaria eta Getxoko Enclave de Ciudadanas delako taldeko partaidea. «Emakumeok geure buruari buruz hausnarketa egin behar dugu eta hausnarketa hori, gizartean toki jakin

batean kokatzen gaituzten patriarkadoaren elementuekin lotu behar dugu. Jabekuntza lortzea ez da erraza, norberak bere bidea eraiki behar du».

Anabel Sanz-ek, Altzako auzuneko Uztai Belarreko ordezkariak bakoitzak hasitako prozesuaz honela dio: bizitzaren pertsonalerako eta bai elkarte bakoitzaren lanerako baliagarria izan zaigu. Nire bizitzako eskarmentutik ondoan dagoenak ikasten du, eta era horretan norberak egiten duena baliotzi egiten da. Ezagutzak partekatzen ikasi dugu, eta pixkanaka pixkanaka, taldeka lan egiten ikasi dugu, jardunaldi hauek kudeatzeko gai izateraino.

### NORBERA BALIOETSI ETA BESTEAK BALIOETSI

Ekintza Dasalud-eko Charo Martínez-entzat norberak bere burua eta baita besteek esaten dutena balioesteko garrantzi handia du. «Guztiok dugu zerbait esateko». «Emakumeok zenbat dakigun eta zer-nolako aberastasuna dugun» gogoratzen duenean hunkitu egiten da. Elkartearen mugimendua, eta 2004an bizi izandako ibilera pertsonal, haziera ekarri diotela aitortzen du.

Data horretan emakumeen elkartekoekin harremanetan hasi baitzen. «Orain beste era batean ikusten ditut emakumeen arazoak, emakumeei ulertu eta sinetsi egiten diet».

Yolanda Núñez-ek konpromiso bat hartu dutela dio: «Genero ikuspuntua duen etengabeko prestakuntza mantentzea. Horrek proposamen feministetan sakontzeko aukera ematen digu bai eta bide berriei ekiteko, ezagutza horiek zabalduz edota partekatuz, proiektu komunek batutako emakumeen taldeentzat espazio berriak sortuz».

Emakume horiek guztiek lan egiten dute, genero ikuspuntua duen prestakuntza horretan gero eta emakume gehiago sar daitezten, eta azken horiek, haien prozesu indibidualari hasiera eman diezaioten, estrategia berriak bilatzen dituzte. Hirurak, denboraren poderioz, Arabako emakumeen elkarteak topaketa hauetara etorriko direlako ustekoak dira. «Gu sei edo zazpi urte eman ditugu honaino iristeko, horiek, beraz, bidea garbituago dute, eta denbora laburragoan bete dezakete ibilbidea. Logistika sisteman eskarmentua dago eta gure transmisioak pausoak erraztuko dizkie».



## EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTARAKO TRESNA INFORMATIKOA

Emakunde tresna informatiko bat jarri du martxan idatzizko dokumentuetan euskararen erabilera ez sexista detektatu ahal izateko. Aplikazio informatiko hau Emakunde argitaratutako "Euskararen erabilera ez sexista" gidan dago oinarrituta.



## INDARKERIAREN PREBENTZIOA ESKOLETAN

Iragan azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko egunean, María Silvestrek, Emakundeko zuzendariak, hitzaldia eskaini zuen eskoletan emakumeen kontrako biolentzia prebenitzeko moduei buruz Gasteizko Magisteritza Eskolako ikasleen aurrean. Hain zuzen ere, Emakunderen Nahiko programaren aurkezpena egin zuen. Nahiko neska eta mutilek etorkizunean izango dituzten bikote-harremanetan tratatu txarrik egon ez dadin lan egiteko prestaturik programa da. Ikasturte honetan, Berdintasuna, Errespetua eta Indarkeriarik eza lortzeko Nahiko Hezkidetza Programaren fase berriari hasiera eman zaio eta 28 ikastetxek eta mila ikasle inguruk hartuko dute parte.

## ENPRESETAN BERDINTASUN DIAGNOSTIKOA EGITEKO METODOLOGIA BERRIA

Beren antolamenduetan berdintasunerantz aurrerapausoak eman nahi dituzten enpresa eta erakunde pribatuei laguntzeko, Emakunde metodologia berria diseinatu du enpresen berdintasun diagnostiko eta planetarako. Metodologia berri hau Kalitate eta Bikaintasunari buruzko Aste Europarraren XVI edizioaren barruan ospaturiko "Berdintasunerako tresnak Erakundeetan" jardunaldietan aurkeztu zen joan den azaroaren 17an. Metodologia



urtearen hasieran prest egongo da eta honen azalpenak Emakunderen web orrian irakur daitezke, Erakundeen Berdintasunerako gunean.

Jardunaldi hauetan laneko jazarpen sexual eta sexistaren kasuak aurre ikusi eta tratatzeko protokoloa aurkeztu zen, egoera haueri aurre egiteko, enpresek neurriak har ditzaten jasoz. Neurri hauek izango dira, praktika onen kodeak lantzea eta zabaltzea, bai eta informazio kanpainak eta prestakuntza ekintzak egitea. Tresna hau garatzeko Emakunde lantalde bat jarri du martxan Cadizeko Unibertsitateko eta EHuko langileekin.

## ZENBAKIAK EGIAZKOAK DIRA, EMAKUNDEREN KANPAINA BERRIA

Emakunde "Zenbakiak egiazkoak dira. Zure ardura ere bada" izenburuko kanpaina jarri du abian. Kanpaina hau Emakunde urtero argitaratzen duen Emakume eta gizonen egoeraren inguruko zifren ikerketan dago oinarrituta eta bere helburua da emakume eta gizonen arteko desberdintasunak azaltzea honako eremuetan: pobrezia, soldata eta etxeko lan eta pertsonen zaintzan. Hauek dira zifrak: 82,9: Txirotasuna eta gizarte-bazterketa jasaten dutenen ehuneko 82,9-a emakumeak dira. Gizonak baino lau aldiz gehiago; 7140: Gizonek urtean emakumeek baino 7140 euro

gehiago soldata dute. Diferentzia handiena zerbitzuen alorrean ematen da; 2,23: Emakumek gizonek baino 2 ordu era 23 minutu gehiago ematen dituzte urtean etxeko-lanetan eta haurren, nagusien, gaixoen eta menpeko pertsonen zaintzan. Spotak aldizkari digitalean ikusi daitezke.

## EMAKUNDEK "GENERO, AUTOERAGINKORTASUNA ETA PROIEKZIO PROFESIONALA" AZTERKETA AURKEZTU DU

Emakunde Rosario Morejón Sabio unibertsitate irakaslearen "Género, autoeficacia y proyección profesional" izeneko liburua argitaratu du. Emakunde urtero antolatzen dituen ikerketa proiektuetarako laguntzen baitan eginiko azterlana da. Unibertsitatetik lan merkatutarako bidean emakumezko eta gizonezko ikasleen artean dagoen desberdintasuna aztertzen du. Honen ildotik adierazten duenez, unibertsitatean emakumeen presentzia gehiengo bada ere (%60) beren presentzia ez da zuzenki agertzen lan eremuan. Azterketa fakultate desberdinetako 403 gizon eta emakume ikasleen artean egin da eta "autoeraginkortasuna" deituriko eraikuntza pertsonalaren inguruan artikulatu da. Honek, pertsona bakoitzak zeregin bati ekiteko orduan arrakasta izateko esperantza neurtzen du.



Aldizkariaren edizio digitalean, eduki gehiago: [www.emakunde.euskadi.net/revista](http://www.emakunde.euskadi.net/revista)

• Munduko mailako krisaldi ekonomikoan neskatoen zaugarritasunaren inguruko txostena. • Lehen orrian egotea merezi duten emakumeen soslaiak. • Enpresa pribatu edo herri erakundeek berdintasunaren alde burututako ekimenak. • Jarduera interesgarrien agenda. • Beste emakumeekin konektatzeko atala. • Iritzia emateko lekua.

Edizioa: Emakunde. Koordinazio teknikoa: Kazeta 5. Diseinua: Didart. Inprimatzailea: Gráficas Santa María. Lege Gordailua: VI 465-2010